


EAEko gazteek desberdintasun handiak antzematen dituzte emakumeen eta gizonen artean, lan- eta politika-arloetan


Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2011ko abenduan kaleratutako 47. Euskal Soziometroaren datuak aztertu ditu Gazteen Euskal Behatokiak. Datuon arabera, 18 eta 29 urte bitarteko gazteek desberdintasun handiak antzematen dituzte emakumeen eta gizonen artean, lanarekin lotutako hainbat alderditan: batetik, lana aurkitzeko aukeretan; eta, bestetik, lana aurkitu eta gero, lana eta familia uztartzekoetan; soldatetan; lanpostuaren egonkortasunean; lanpostua hobetzeko aukeretan; edo enpresetan erantzukizun handiko lanpostuak eskuratzekoetan.



Politikaren arloan ere hainbat desberdintasun antzematen da. Hain zuzen ere, gazteen %41en ustez, emakumeentzat zailagoa da politikan erantzukizuneko lanpostuak eskuratzea gizonentzat baino. Gazteen %3k baino ez dute uste emakumeen egoera hobea dela gizonena baino.

Nolanahi ere, pertzepzio horiek ez dira biztanleria osoarenak bezain negatiboak. Aztertutako alderdi guztietan, emakumeen egoera gizonena baino okerragoa dela diotenen ehunekoak garaiagoak dira 18 urtetik gorako EAEko biztanleria osoan, gazteengan baino.

Emakumeen egoera gizonena baino txarragoa delakoaren ustea (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Prospekzio Soziologikoen Kabineteko datuak oinarri hartuta (ES47, 2011)